

AUTOEBALUAZIOA**II. MODULUA: SENDAGAIK ADMINISTRATZEKO BIDEAK**

1. Sendagaien administrazio bidea aukeratzeko irizpideen artean,
 - a) Adinak ez du sekula administrazio bidearen aukeraketa baldintzatzen.
 - b) Kostua ez da sekula kontutan eduki behar.
 - c) Eraginkortasuna eta segurtasuna ezinbestekoak dira.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

2. Farmako batzuk, erabilitako administrazio bidearen arabera eragin mota ezberdina dute
 - a) Egia.
 - b) Gezurra.

3. Tratamenduari itsaspena
 - a) Ez dago pazientearentzako tratamenduaren erosotasunarekin erlazonaturik.
 - b) Pazienteek tratamendua betetzen duten maila da.
 - c) Ez da sekula kontutan eduki behar administrazio bidea aukeratzeko.
 - d) Pazienteak sendagaiak hartzeko duen erraztasuna da.

4. Administrazio bide egokien aukeratzeko, ezinbestekoa da informazio hau edukitzea:
 - a) Administrazio bidearen ezaugarri anatomikoak eta fisiologikoak.
 - b) Dosifikazio formaren portaera administrazio tokian.
 - c) Administratzen den farmakoaren ezaugarri fisiko-kimikoak.
 - d) Guztiak zuzenak dira.

5. Administrazio bide enteralak honako hauek dira
 - a) Aho-barrunbekoa/mihipekoa, aho-bidea eta ondeste-bidea.
 - b) Aho-bidea.
 - c) Mukosen bidezko administrazio bide guztiak.
 - d) Edozein administrazio bide, parenteralak izan ezik.